



## DEIALDIAREN DATAK

uztailaren 23tik  
irailaren 21era

Ez galdu aukera  
paregabe hau!

## Atzerrian esperientzia bat bizi nahi?

AFMek, IKASLANek eta MU-ak 80 nazioartekotze-beka eskaintzen ditugu.

**80 BASQUE GLOBAL INDUSTRY beka**, tituludun euskal gazteentzat, atzerrian 6 eta 12 hilabete bitartean ordaindutako lan-esperientzia bat izan dezazuen.

Eman izena webgune honetan: [www.gazteakatzerrian.eus](http://www.gazteakatzerrian.eus)

Beka hauek Basque Trade & Investment (Euskal Nazioartekotze Agentzia), SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal Agentziaren eta Eusko Jaurlaritzaren ekimen bat dira.

Global Training hainbat entitateren bitartez kudeatzen da eta Basque Trade & Investment webgunean beken eskaintza bateratua kontsultatu daiteke:

<https://basquetrade.spri.eus/eu/talentua/basque-global-industry-programa/>

## EZAUGARRIAK

- Nazioarteko praktikak.
- 80 beka.
- 6-12 hilabeteko iraupena.
- Aurreikusitako zuzkidura gordina: hilabetean 1.785 €/gordin.
- Zuzkidura horren bidez, bekadunak honako gastu hauek ordaindu beharko ditu: jomugako herrialdera iristeko bidaia, mantenua, ostatu hartzea, bekadunari dagozkion Gizarte Segurantzaren eta Ogasuneko kotizazioaren kostuak.
- Bekadunak Erantzukizun Zibileko, Istripuetarako eta Bidaiaiko Laguntza Aseguru bat izango du atzerrian egingo duen egonaldi osoan. Horren kostua AFM-IKASLANek eta MU-ak hartuko du bere gain, eta bekadunak ez du ezer ordaindu beharko.

## BALDINTZAK

- 30 urte beteta ez izatea 2026eko urtarrilaren 1ean.
- Unibertsitate-lizentzia, Diplomatura, Gradua, Goi-mailako Lanbide Heziketa edo Goi-mailako Ikasketak.
- Europar Batasuneko estatu kideren bateko nazionalitatea izatea.
- Euskadiko udalerrri batean izatea administrazio-egoitza, eskabideak aurkezteko epea zabaldu aurretik gutxienez urtebetez eta inolako etenaldirik gabe, edo 5 urtez jarraian, aurreko 10 urteetan zehar.

Kudeatzaileak:



CLUSTER  
FOR ADVANCED & DIGITAL  
MANUFACTURING



ikasLAN

Mondragon  
Unibertsitatea

- Atzerrian 6 hilabetetik gorako praktiketarako egonaldia egiteko beste bekaren bat jaso ez izana.
- Dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galarazten duen zigor administratiborik edo penalik ez izatea, edo laguntza horiek jasotzeko aukera kentzen duen legezko debekurik ez izatea.
- B1 ingeles-maila izatea, baldin eta Goi-mailako Lanbide Heziketa egin bada; eta B2 maila izatea, Unibertsitateko titulua izanez gero. Era berean, aintzat hartuko da herrialde hartzaileko hizkuntzaren ezagutza izatea. Hizkuntza maila hautaketa-prozesuan zehar egiaztatu ahal izango da, homologatutako tituluaren bidez edo ahozko eta idatzizko proba baten bidez, eguneratutako ziurtagiririk ez dutenentzat.

## BEHARKO DOKUMENTAZIOA

Behin eskaera jasota e-mail bat bidaliko dizugu guztia ondo jaso degula esanez.

### KONFIRMAZIOA JASO ONDOREN ERANTSI BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Eguneratutako CVA.
- NAN edo pasaportea eskaneatua.
- Euskadiko erroldatze-ziurtagiria, eskabideak aurkezteko epea irekitzen den unea baino gutxienez 12 hilabete lehenagotik edo elkarren segidako 5 urtez aurreko 10 urteetan
- Titulu akademikoaren (Unibertsitarioa edo Goi mailako Lanbide-Heziketakoa) kopia edo honen espedizioaren ordainketa ziurtatzen duen dokumentu ziurtagiria.
- Hizkuntza-tituluen kopia.
- Zin-Aitorpena.
- Eskaera orria

E-mail hau lan-eguneko 48 ordutan jasotzen ez badezu, jarri harremanetan

- Tel.: +34 943 309 009 edo [info@globaltraining.eus](mailto:info@globaltraining.eus).

## HAUTAKETA PROZESUA ETA EPEA

### DEIALDIAREN DATAK: UZTAILAREN 23TIK IRAILAREN 21ERA

- CV-aren azterketa eta titulazioaren, prestakuntzaren, esperientzien eta praktiken balorazioa.
- Ingelesaren proba. Ingelesaren B1 edo B2 maila ezin egiaztatu dezaketen eskatzaileek aipatu hizkuntzaren maila egiaztatzeko proba bat egin beharko dute.
- Eskatutako enpresarekiko eta postuarekiko hautagaiaren profilaren egokitasuna aztertzeko elkarriketa pertsonala.
- 2026ko urria eta 2027ko urtarrila bitartean abiatuko dira bekadunak herrialde hartzaileetara.

Kudeatzaileak:

## BEKADUNAREN BETEHARRAK

Bekadunaren betebeharra izango da:

- AFM-IKASLAN-ek eta MU-ak zehaztutako jarraitze txostenak egitea eta bidaltzea.
- Elkarlan adostasuna AFM-IKASLAN-MU-ekin sinatzea.
- Bisa izapideak egitea (beharrezkoa den kasuetan).
- Bekaren balorazio inkestetan parte hartzea.
- Bekari uko egin edo kaleratua izan ezker, jaso litekeen gehiegizko zenbatekoa itzultzea.
- Enpresak eskatzen dizkion lanak burutzea, beti ere alde z aurretik zehaztutako planaren barne dagoenean.
- Dagokion herrialdera joan aurretik, 40-60 orduko formakuntza kurtsoa egitea.
- Dagokion herrialdeko kontsulatuan edo enbaxadan izena ematea, bekaren iraunaldiko bizitokia zehazteko.
- Bekak dirauen bitartean ordaindutako beste jarduerarik ez egitea.
- Bizitokia ez dagoen herrialdeetara egindako bidaien berri eman beharko da, bidaiaren arrazoiak praktikarekin lotutakoak zein pertsonalak izanda ere, aseguru-poliza gaurkotu eta estaldura bermatu ahal izateko.

Kudeatzaileak: